IRAGARKIAK

Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1305

IRAGARKIA, Abadiñoko Zelaieta LHI (Bizkaia) ikastetxean oztopo arkitektonikoak kentzeko eta gimnasio berria eraikitzeko lanen obra-kontratuaren lizitazioa jakinarazteko dena.

1.– Entitate esleitzailea: datu orokorrak eta informazioa jasotzeko datuak.

a) Erakundea: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Kontratazio Mahaia – Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

c) Agiriak eta argibideak:

1) Bulegoa: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kontratazio Zerbitzua.

2) Helbidea: Donostia kalea 1.

3) Herria eta posta-kodea: Vitoria-Gasteiz, 01010.

4) Telefonoa: 945 01 65 42.

5) Telefaxa: 945 01 83 35.

6) Posta elektronikoa: huisl049@ej-gv.es.

7) Kontratatzailearen profilaren internet-helbidea: www.contratacion.euskadi.net.

8) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 2012ko apirilaren 13a.

d) Espediente-zenbakia: CO/04/12.

2.– Kontratuaren ezaugarriak.

a) Mota: obra.

b) Deskribapena: Abadiñoko Zelaieta LHI ikastetxean oztopo arkitektonikoak kentzeko eta gimnasio berria eraikitzeko lanak.

c) Loterik dagoen eta zenbat lote: ez.

d) Entregatzeko/gauzatzeko lekua: Abadiñoko Zelaieta LHI.

e) Gauzatzeko/entregatzeko epea: 6 hilabete, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

f) Luzapena onartzea: ez.

3.– Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapidea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Enkante elektronikoa: ez.

d) Esleipen-irizpideak, halakorik badago.

Eskaintza ekonomikoa. Haztapena: 50.

Obra-planaren koherentzia. Haztapena: 50.

4.– Kontratuaren balio zenbatetsia: 559.533,19 euro.

5.– Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

Zenbateko garbia: bostehun berrogeita hemeretzi mila bostehun hogeita hamahiru euro eta hemeretzi zentimo (559.533,19). BEZa (% 18): ehun mila zazpiehun hamabost euro eta laurogeita hamazazpi zentimo (100.715,97). Guztira: seiehun hirurogei mila berrehun berrogeita bederatzi euro eta hamasei zentimo (660.249,16).

6.– Bermeak.

Behin-behinekoa: ez.

Behin betikoa: esleipenaren zenbatekoaren % 5a, BEZa kanpo.

7.– Kontratistaren betebeharrak.

a) Sailkapena, behar izanez gero (taldea, azpitaldea eta kategoria): C taldea, 2 azpitaldea, d kategoria.

b) Kaudimen ekonomikoa eta finantza mailakoa eta kaudimen tekniko eta profesionala, behar izanez gero: Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresak, karatularen 29.1 atalean aurreikusitakoa betez.

8.– Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: 2012ko apirilaren 13ko 13:00ak.

b) Aurkezteko modalitatea: eskuz edo postaz.

c) Aurkezteko lekua:

1) Bulegoa: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Erregistro Orokorra. Lakua II, 3. solairua.

2) Helbidea: Donostia kalea 1.

3) Herria eta posta-kodea: Vitoria-Gasteiz, 01010.

d) Zenbat enpresari dei egingo zaien eskaintzak aurkezteko (prozedura murriztua): ez.

e) Aldaerak: ez.

f) Lizitatzaileak zenbat denboran eutsi behar dion bere eskaintzari: 2 hilabete, eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik hasita.

9.– Eskaintzak irekitzea.

a) Helbidea: Donostia kalea 1.

b) Herria eta posta-kodea: Vitoria-Gasteiz, 01010.

c) Eguna eta ordua:

«C» gutunazalaren irekitzea: 2012ko maiatzaren 9ko 11:00ak.

«B» gutunazalaren irekitzea: 2012ko ekainaren 8ko 11:00ak.

10.– Publizitate-gastuak: iragarki ofizialaren gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

EHAA: laurehun eta berrogeita zazpi euro eta laurogeita hemeretzi zentimo (447,99).

11.– Iragarkia noiz bidali den Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera: ez da bidali.

12.– Bestelako argibideak: ez dago.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a.

Administrazio eta Dirubideen zuzendaria,
JUANA URRUTIA BILBAO.